

BILBAO EKINTZA EPEL ENTITATEKO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EBAZPENA, MERKATARITZA-SEKTOREKO ESTABLEZIMENDUAK BILBON ZUZENEAN KONTSUMITZEA SUSTATZEKO BONUEN PROGRAMARI ATXIKITZEKO EPEARI HASIERA EMATEARI BURUZKOA

Bilbao Ekintza EPEleko Administrazio Kontseiluak, 2021eko martxoaren 29an egindako saioan, merkataritza-sektorearen barruan Bilbon zuzenean kontsumitza sustatzeko bonuen programa arautzeko araudia onetsi zuen.

“BILBOKO BONUAK” bonu-sistema arautu nahi du programak, herritarrek Bilboko establezimenduetan erosi dezaten bultzatzeko asmoz, eta, horri esker, udalerriko merkataritza-sektoreei suspertzen lagunduko zaie.

Hori horrela, Bilbao Ekintzak, programaren bitartez, hirian zuzenean kontsumitza sustatu nahi du pandemiagatik kaltetuen izan den sektoreetako batean enplegua eta ekonomia suspertzeko, Bilbo hiri bizia eta dinamikoa izan dadin.

Hauxe ezarri da araudiaren 7. apartatuan: *“establezimenduek eta enpresek bat egiteko epea Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bitartez abiaraziko da, eta entitatearen webgunean argitaratuko da. Bat egiteko eskabideak aurkezteko epea programak iraun bitartean egongo da irekita”*.

Era berean, atal horretan ezarri dira Bilboko Udalaren 2021eko Bilbao Aurrera Planaren barruan merkataritzaren sektorean Bilbon zuzenean kontsumitza sustatzeko bonuen programan parte hartzeko entitateek eta establezimenduek bat egiteko bete behar dituzten baldintzak eta prozedurak.

Hori guztia dela eta, egoki jotzen da 2021eko apirilaren 13an hasiera ematea merkataritzako sektorean Bilbon zuzenean kontsumitza sustatzeko bonuen programan parte hartzeko entitateek eta establezimenduek eskabideak aurkezteko duten epeari, bai eta honako ebazpen hau ematea ere:

EBAZPENA

Entitateko zuzendari nagusiak onesta merkataritzaren sektorean Bilbon zuzenean kontsumitza sustatzeko bonuen programarekin bat egiteko eskabideak aurkezteko epeari hasiera ematea, 2021eko apirilaren 13an hasita.

Bilbon, 2021eko apirilaren 9an.

F. Javier Garcinuño Zabala

Zuzendari nagusia